


TRATU EZBERDINAK, DENA ONAK**1. Kateak apurtzen¹**

Elkartasuna da talde bat osatzen duten pertsonen elkarrekiko **ardura** eta **dependentzia**. **Taldekideak** balio moralekin bata besteari loturik daude; horrela, taldekide batek dituen arazoak gizatalde osoari eta horren kideei dagozkie neurri batean edo bestean.

Elkartasuna giza balio bezala definitzen da: gizakiak besteekin elkarlanean aritzeko duen gaitasuna da eta zerbaiten parte izatearen sentimenduak sortzea ahalbidetzen du. Bakarrik egin ezin duguna besteen laguntzaz lor daiteke.

Jarduera honetan ikasleek mundua hobetzeko bideak irudikatuko dituzte eta bide horietan elkartasunaren garrantziaz hausnarketa egingo dute.

Jarduera hau egin baino lehen, lagungarria izan daiteke  ariketa egitea, giro lasaia egon dadin eta ikasleek horrelako ariketak egiteko ohitura har dezaten.

HELBURUAK

- Mundua leku hobea izan dadin egin genezakeen guztiaz hausnarketa egitea.
- Sufritzen ari diren pertsonen egoera aldatzea zergatik den hain zaila aztertzea.
- Zailtasunen menpe ez geratzea eta gure kateak eta beldurrak apurtzen lagunduko digun norbait beti egongo dela jakiteak duen garrantzia zenbaterainokoa den jakitea.

GARAPENA

Lehenik eta behin ikasleei denbora emango diegu **bakarka** amets egin dezaten: mundua eta bertan bizi diren pertsonen bizitza hobetzeko **bi ekintzetan** pentsatuko dute. Folio bat bitan zatituko dute eta zati bakoitzean ekintza bat idatziko dute. Ondoren, ikasgelako hormetan bakoitzak gauzatu beharreko ametsak eta ekintzak itsatsiko dituzte.

Behin paperak itsatsita, eta berriro ere **bakarka**, pentsatu egin beharko dute zein den **oztopoa** ekintza horiek gauzatzeko. Bakoitzak hori argi daukanean, puxikak puztuko dituzte eta bertan idatziko dute pentsatu dutena, zein den ametsak gauzatzeko oztopoa, zein diren gure kateak.

Orduan, puxikak lotu beharko dituzte soka zati batez orkatila banatan, lotzen gaituzten kateak balira bezala, eta ikasgelan zehar ibiliko dira gainerakoek euren kateak ikus ditzaten. Irakasleak azaldu egingo du kateak apur daitezkeela, baina, horretarako, gainerakoek laguntza behar dugula; beraz, gainerako ikasleak izango dira gure kateak apurtuko dituztenak, hots, haiek izango dira gure puxikak apurtuko dituztenak, zapalduz, gainean salto eginez.

¹ Gizagune Fundazioa. Unitate Didaktikoa Elkargunea.. Moldatua.



GURE ARTEAN ONDO KONPONTZEN!

Talde handian, kontuan izanik helburua zela hainbat egoera aldatzeko dauden zailtasunez hausnartzea eta guri laguntzeko norbait beti egongo dela jakiteak duen garrantziaz jabetzea, ikasleekin saioaren balorazio txiki bat egingo da:

- Zer iruditu zaizu ekintza hau?
- Zer da zuretzat elkartasuna? Zer irudikatzen dute kateek?
- Kateak oztopo bat al dira gu solidarioak izateko?
- Kate batzuk besteak baino astunagoak al dira? Zer modutan?
- Nola lagundu diezaiekezu gainerakoei euren kateak apurtu behar dituztela ikus dezaten?

DENBORA

Saio bat

BALIABIDEAK

- Koloretako puxikaz betetako poltsa bat (puxika handiak)
- Partaide bakoitzeko bi lazo
- Folioak eta koloretako boligrafoak